

EPE NAFARROA 2024



Haur eta Lehen Hezkuntzako maisu/maistrak

AURKIBIDEA

- Deialdiak zer dio?
 - Programazioa atalez atal
 - Sarrera
 - Justifikazioa
 - Testuingurua
 - Curriculum elementuak
 - Metodologia
 - Ebaluazioa
 - Aniztasunari erantzutea
 - Unitate didaktikoak
 - Bibliografia
-

DEIALDIAK ZER DIO?

Oposizioaldia.

2.1. Xedapen orokorrak.

Oposizioaldiak aurkezpen ekitaldi bat eta bi proba izanen ditu, denak baztergarriak. Bigarren probara pasatzeko, izangaiak 5 puntu edo gehiago lortu beharko ditu lehenengo proban.

Oposizioaldiaren hasierako aurkezpen ekitaldia ez da 2024ko maiatzaren 10a baino lehenago izanen.

Izangaiei dei eginen zaie oposizioaren aurkezpen ekitaldira ager daitezzen. Ebazpen hori jendaurrean jarriko da, www.nafarroa.eus helbidean, aurkezpen ekitaldia baino zazpi egun natural lehenago, gutxienez. Ebazpen horretan epaimahaien aurreko jarduketa noiz, zein ordutan eta non hasiko den adieraziko da.

2.3. Lehenbiziko proba.

Lortu nahi den espezialitatearen gaineko berariazko ezaupideak erakustea du helburu, eta bi zati izanen ditu, batera baloratuko direnak. Proba honen bi zatiak egun berean egiten ahalko dira.

A zatia.

Zati honetan ariketa praktiko bat egingen da, izangaiak lortu nahi duen espezialitateari dagozkion trebetasun teknikoak menperatzen dituen eta prestakuntza zientifikoa baduen egiaztatzeke balioko duena.

Proba praktikoaren ezaugarriak ebazpen honen III. eranskinean zehazten dira.

Epaimahaiek zehaztuko dute A zatia egiteko gehieneko denbora. Ezin izanen da 2 ordutik gorakoa izan.

A zatia zero puntutik hamar puntura bitarte baloratuko da, eta oposizioaldiko lehenengo probaren kalifikazioaren %50 egingen du, betiere izangaiak gutxienez 2,5 puntu lortzen badituzte.

B zatia.

Atal honetan, izangaiak bi gairen artean aukeratutako gai bat garatu beharko da, idatziz.

Espezialitate bakoitzean aplikatuko diren gai-zerrendak indarrean daudenak dira, eta deialdi honen II. eranskinean agertzen dira.

Izangaiek bi ordu izanen dituzte, gehienez, B zatia egiteko.

B zatia zero puntutik hamar puntura bitarte baloratuko da, eta oposizioaldiko lehenengo probaren kalifikazioaren %50 egingen du, betiere izangaiek gutxienez 2,5 puntu lortzen badituzte.

2.4. Bigarren proba:

Izangaiek bigarren proban parte hartzeko ordena alfabetikoki zehaztuko da; horretarako, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuak zozketaz bi letra aterako ditu eta lehenengo abizenaren hasieran bi letra horiek dituen izangaia hasiko da.

Izangaiak duen **gaitasun pedagogikoa baloratuko da, bai eta irakasle lanean aritzeko behar diren teknikak noraino menderatzen dituen ere. Horretarako, programazio didaktiko bat aurkeztu eta ahoz defendatu beharko du, eta unitate didaktiko bat prestatu eta ahoz azaldu.**

Proba hau zero puntutik hamar puntura bitarte baloratuko da (%30 A zatiari dagokio, eta %70 B zatiari), eta gainditu ahal izateko, izangaiak gutxienez ere bost puntu lortu beharko ditu, betiere gutxienez 2,5 puntu lortzen baditu zati bakoitzean.

Izangaiek ordubete izanen dute gehienez unitate didaktikoa prestatzeko. Prestaketarako denbora bukatuta, programazio didaktikoaren defentsa hasiko da (hogeita hamar minutuz gehienez) eta unitate didaktikoaren azalpena (hogeita hamar minutuz gehienez).

Izangaiaren parte-hartzea bukatu, epaimahaiak behar adina galdera egiten ahaliko dizkio izangaiari programazio didaktikoaren edo unitate didaktikoaren gainean; eztabaida horrek hamabost minutu iraunen du gehienez. Izangai bakoitzak, guztira, ordu bat eta hamabost minutu izanen ditu gehienez programazioa eta unitate didaktikoa azaldu eta defendatzeko.

A zatia. Programazio didaktiko bat aurkeztea eta defendatzea.

Izangaiak bakarrik eta bere kabuz egindako programazio didaktikoa originala izanen da, eta haren kopia bakarra entregatu beharko zaio epaimahaiari edo hautapen batzordeari aurkezpen ekitaldian.

Izangaiak berak aurkezten ez badu programazioa oposizioaren aurkezpen ekitaldian, hautapen prozeduratik kanpo geldituko da.

Programazio didaktiko hori prestatzean, deialdiaren V. eranskinean adierazten diren alderdiak jaso beharko dira.

Programazio didaktikoa epaimahaiaren aurrean defendatuko da. Izangaiak gehienez ere hogeita hamar minutu izanen ditu azalpen hori egiteko.

Azalpena egiteko, izangaiak programazio didaktikoaren kopia bat eramaten ahalko du, aurkeztu zuenaren berdin-berdina, bai eta egoki iruditzen zaion material osagarria ere, berak eramanda.

B zatia. Unitate didaktiko bat prestatzea eta azaltzea.

Izangaiak prestatu eta epaimahaiaren aurrean ahoz defendatu beharreko unitate didaktikoa izangaiak aurkeztutako programazioarekin zerikusia izan dezake, edo, bestela, norberaren espezialitatearen gai-zerrenda ofizialetik abiatuta presta daiteke, izangai bakoitzaren hautura.

Lehenengo kasuan, unitate didaktikoaren edukia aukeratzeko, izangaiak bere programaziotik hiru unitate aterako ditu zozketaz, eta horietako bat aukeratuko du. Bigarren kasuan, unitate didaktikoaren edukia aukeratzeko, izangaiak hiru gai aterako ditu zozketaz bere espezialitatearen gai-zerrenda ofizialetik, eta horietako bat aukeratuko du.

Unitate didaktiko hori prestatzean, deialdiaren V. eranskinean adierazten diren alderdiak jaso beharko dira.

Unitate didaktikoa prestatu eta azaltzeko, izangaiak nahi duen laguntza-materiala erabiltzen ahalko du, berak ekarria, eta gidoi moduko bat, bi orrikoa gehienez, azalpena bukatutakoan epaimahaiari entregatu beharko diona.

Unitate didaktikoaren prestaketa eta azalpena zero puntutik hamarrera bitarte baloratuko da, eta oposizioaldiko bigarren probaren kalifikazioaren %70 eginen du. Haztapan hori egin ahal izateko, izangaiak gutxienez 2,5 puntu lortu beharko dute probaren zati honetan.

DEIALDIAK ZER DIO? V. ERANSKINA. –BIGARREN PROBAREN A ZATIRAKO ZEHAZTAPENAK: PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA ETA UNITATE DIDAKTIKOA

1. Haur Hezkuntzan programazio didaktikoa egiteko araudia:

–61/2022 Foru Dekretua, ekainaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako etapako curriculumak ezartzen duena (2022ko 112. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, ekainaren 7koa).

–62/2022 Foru Agindua, abuztuaren 8koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan dauden Haur Hezkuntzako ikastetxeetako irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia arautzen dituen (2022ko 165. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, abuztuaren 19koa).

59/2023 Foru Agindua, ekainaren 30ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzan ari diren ikasleen ebaluazioa arautzen duena (2023ko 151. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, uztailearen 20koa).

-69/2023 Foru Agindua, abuztuaren 21ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako hezkuntza inklusioa arautzen duena (2023ko 196. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, irailaren 19koa).

2. Lehen Hezkuntzan programazio didaktikoa egiteko araudia:

-67/2022 Foru Dekretua, ekainaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumak ezartzen duena (2022ko 130. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, uztailaren 1ekoa).

-63/2022 Foru Agindua, abuztuaren 8koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan dauden Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia arautzen dituen (2022ko 169. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, abuztuaren 25ekoa).

-52/2023 Foru Agindua, ekainaren 12koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzan ari diren ikasleen ebaluazioa eta sustapena arautzen dituen (2023ko 136. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, ekainaren 29koa).

-69/2023 Foru Agindua, abuztuaren 21koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako hezkuntza inklusioa arautzen duena (2023ko 196. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, irailaren 19koa).

3. Programazio didaktikoaren edukia

Programazio didaktikoak Nafarroako Foru Komunitateko **ikastetxe publiko** bat hartu beharko du **testuinguru** gisa, **2023-24 ikasturtean**, eta parte hartzen den **espezialitatekin lotutako arlo edo eremu** (Haur Hezkuntzako bigarren zikloaren kasuan) baten curriculumari buruzkoa izanen da. Honako elementu hauek zehaztu beharko dira:

- Funtsezko konpetentziak
- Konpetentzia espezifikokoak
- Ebaluazio irizpideak
- Oinarrizko jakintzen sekuentzia
- Ikaskuntza egoerak
- Ebaluazio prozedurak eta tresnak, kalifikazio irizpideak, errekonstruziorako sistema (Lehen Hezkuntzarako soilik).
- Metodologia
- Materialak eta baliabide didaktikoak
- Aniztasunari erantzutea
- Jarduera osagarriak
- Zeharkako elementuak
- Programazioaren jarraipena eta ebaluazioa.

3. Programazio didaktikoaren izaera formala

Programazioa kasuan kasuko espezialitateko irakasleek irakasteko eskumena duten hezkuntza maila edo etapa baten ikasturte baterako prestatuko da.

- **Gehienez ere 50 orrialde zenbakitu izanen ditu, DIN-A4 formatuan, lerroarte arruntarekin, 12 puntuko Arial letra erabiliz, konprimitu gabe.**
- **Grafika, taula, irudi eta antzekoetan 10 puntuko Arial letra erabiltzen ahalko da. Argazki-oinetan, orri-oinetan eta goiburuan Arial ez den beste letra mota bat eta aipatutakoak baino neurri txikiagoak erabiltzen ahalko dira.**
- **Azalaren diseinua libre da, baina nahitaez jasoko dira izangaiaren izena, abizenak eta NAN zenbakia edo identifikazio agiria.**
- **Programazioak gutxienez 10 unitate didaktiko zenbakidun eduki beharko ditu.**
- **Programazio didaktikoaren azala, kontrazala eta aurkibidea ez dira zenbatuko 50 orrialde horien barruan. Izangaiak bere borondatez eranskinak edo material lagungarriak gehitzen baditu, ulertuko da baimendutako orri kopuruaren barruan daudela, eta horiek ere aipatutako ezaugarri teknikoak bete beharko dituzte.**

4. Unitate didaktikoa: edukia

Unitate didaktikoa prestatzean, honako elementu hauek zehaztu beharko dira:

- Ikaskuntzaren helburuak.
- Konpetentzia espezifikokoak.
- Oinarrizko jakintzak.
- Irakaskuntza jardueren sekuentzia.
- Hedatu beharreko ikaskuntza egoerak.
- Ebaluazio prozedurak eta irizpideak.
- Deskribatzaile operatiboak.
- Metodo pedagogikoak, estrategiak eta espazioen eta denboren antolamendua, materialak eta baliabideak.
- Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzako arreta.

Hori guztia, ebazpen honen IV. eranskinean zehaztutako balorazio irizpideekin bat etorriz.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK: A ZATIA: PROGRAMAZIO DIDAKTIKO BAT AURKEZTEA ETA DEFENDATZEA.

-Formazko betebeharrak:

Programazio didaktikoak ez baditu betetzen V. eranskinean adierazitako formazko betebeharrak, probaren zati horri dagokion puntuazioaren %50 kenduko zaio izangaiari. Hauek dira formazko betebeharrak:

-Antolaketa:

Programazioaren aurkezpena eta justifikazioa egitea eta Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen curriculumaren arabeko testuingurua azaltzea.

Ongi planteatuak egotea programazioa osatzen duten elementuak, atalen koherentzia eta proposatzen duen sekuentziazioaren logika.

SARRERA , JUSTIFIKAZIOA, TESTUINGURUA

-Eduki teknikoa:

Programazio didaktikoak indarrean dagoen araudian ezarritako curriculumeko elementu guztiak ditu, kasuan kasuko hezkuntza etaparen mailarekin bat etorriz.

CURRICULUM ELEMENTUAK

-Eduki didaktikoa:

Ikasmailarako egokiak diren metodologia, materialak eta baliabide didaktikoak.

Prozedurak, lanabesak, tresnak eta ebaluazioari lotutako bestelako alderdiak zehaztea, Nafarroako Foru Komunitatean ebaluazioaren arloan aplikatu beharreko araudiari jarraituz.

Aniztasunari erantzuteko neurriak, arreta berezia jarritz hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzako neurriei.

METODOLOGIA, EBALUAZIOA ETA ANIZTASUNA



-Komunikazio gaitasuna:

Ideiak modu egituratuan eta ulergarrian adierazi dira, komunikazio-testuingurura egokitutako formalitate-mailarekin hitz egiteko gaitasunarekin.

Ebaluazio epaimahaiaren galderei emandako erantzunak egokiak eta koherenteak izan dira.

KOHERENTZIA, KOHESIOA...

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK: B ZATIA: UNITATE DIDAKTIKO BAT PRESTATZEA ETA AZALTZEA.

-Alderdi orokorrak:

Unitate didaktikoa justifikatu da eta hari testuingurua eman zaio programazioaren edo espezialitatearen gai-zerrendaren barruan.

Unitate didaktikoa ongi egituratuta dago eta haren elementuak koherenteak dira beren artean.

Izangaiak azalpen argia, ordenatua, arina eta koherentea egin du.

-Helburuak, edukiak eta metodologia:

Honako hauek ongi planteatuta daude eta elkarren artean koherenteak dira: ikaskuntza helburuak, konpetentziak (funtsezkoak eta espezifikoak), oinarrizko jakintza gisa adierazitako edukiak, metodo pedagogikoak eta ebaluazio irizpideak, ikaskuntza egoerak eta, Lehen Hezkuntzan, irteera-profila.

Zehaztu da zer-nolako lotura duten oinarrizko jakintzek konpetentzia funtsezkoak eta espezifikoak garatzeari begira, bai eta konpetentziek deskriptore operatiboekin duten lotura ere.

Metodo pedagogikoak bat datoz ikasleen ezaugarriekin.

-Jarduerak:

Jarduerak motibagarriak dira eta zailtasun maila bat baino gehiago dituzte, ikasleen eta ikasmailaren ezaugarrietara egokitzeko.

Guneak eta denborak antolatzea.

Material eta baliabide didaktikoak erakargarriak, egokiak eta askotarikoak dira.

-Ebaluazioa:

Ebaluazio irizpideak bat datoz helburuekin, konpetentziekin (funtsezkoak eta espezifikokoak), deskriptore operatiboekin (Haur Hezkuntzan ez), oinarrizko jakintzekin eta aplikatu beharreko metodo pedagogikoekin.

Prozedurek, ebaluazio tresnek eta kalifikazio irizpideek adierazten dute zer-nolako jardun-maila espero den ikasleen partetik, eta, Lehen Hezkuntzaren kasuan, zer-nolako ekarpena egingen dioten ikasleen irteera profilarari.

Aniztasunari erantzuteko neurriak, arreta berezia jarritz hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzako neurriei.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK: B ZATIA: UNITATE DIDAKTIKO BAT PRESTATZEA ETA AZALTZEA.

-Komunikazio gaitasuna:

Ideiak modu egituratuan eta ulergarrian adierazi dira, komunikazio-testuingurura egokitutako formalitate-mailarekin hitz egiteko gaitasunarekin.

Ebaluazio epaimahaiaren galderei emandako erantzunak egokiak eta koherenteak izan dira.

PROGRAMAZIOA
ATALEZ ATAL

AURKIBIDEA:

0. SARRERA
1. JUSTIFIKAZIOA
2. TESTUINGURUA
3. CURRICULUM ELEMENTUAK
4. METODOLOGIA
5. EBALUAZIOA
6. ANIZTASUNARI ERANTZUTEA
7. UNITATE DIDAKTIKOAK
8. BIBLIOGRAFIA

O. SARRERA

Aurkibideaz gain komeni da sarrera bat egitea. Bertan, programazioan aztertzaileak aurkituko dituen atalen berri emango du.

Hau da, zein hurrenkeratan, zergatik, zer eransten dion atal bakoitzak gure ikaskuntza-irakaskuntza

prozesuei... Zein arlo eta maila aukeratu ditugun ere aipatuko dugu, irakasgaiaren izaera zein den azalduz

:enborreko irakasgai orokorra, aukerako enborreko irakasgaia, irakasgai espezifikoaren multzokoa edota Foru Erkidegoaren konfigurazio askeko irakasgaiaren multzokoa.

Kontuan hartu sarrera on bat egiteak aukera emango digula gerora gure programazioa antolatzeko.

1. JUSTIFIKAZIOA: IKUSPEGI TEORIKOA ETA LEGEEN ARABERAKOA

1.1. Justifikazio teorikoa

Hau da, zertarako programatzen dugu?:

Sarean hainbat artikulu eta material aurkituko duzue honen inguruan.

Adibidez:

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/comunicaciones_centros/eu_inspec/adjuntos/Programazio_didaktikoak_orientabideak_LH_eta_DBH.pdf

"Programazio didaktikoa irakasle-lanaren atal bat da, eta irakasteko eta ikasteko prozesua hobetzearekin lotuta dago. **Funtsean, ikasleen beharrak eta ezaugarriak balioesten ditu, lortu nahi diren helburuak aztertzen ditu, eta, beraz, irakasle-taldeak ikasleek ahalik eta arrakastarik handiena lortzeko hartzen dituen erabakiak zehazten ditu.**

Aurretiko hausnarketa horiek egokiak eta errealistak izatearen baitan egongo da, neurri batean, programazioaren kalitatea, bai eta egingo den proiektuaren emaitza ere."

1. JUSTIFIKAZIOA: IKUSPEGI TEORIKOA ETA LEGEEN ARABERAKO

1.2 JUSTIFIKAZIOA LEGE ETA ARAU IKUSPEGITIK

Zeintzuk dira gure programazioa osatzeko erabiliko ditugun lege eta arauak?

Haur Hezkuntzan:

-61/2022 Foru Dekretua, ekainaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako etapako curricula ezartzen duena (2022ko 112. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, ekainaren 7koa).

-62/2022 Foru Agindua, abuztuaren 8koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan dauden Haur Hezkuntzako ikastetxeetako irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia arautzen dituena (2022ko 165. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, abuztuaren 19koa).

-59/2023 Foru Agindua, ekainaren 30ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzan ari diren ikasleen ebaluazioa arautzen duena (2023ko 151. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, uztailaren 20koa).

-69/2023 Foru Agindua, abuztuaren 21ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako hezkuntza inklusioa arautzen duena (2023ko 196. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, irailaren 19koa).

1. JUSTIFIKAZIOA: IKUSPEGI TEORIKOA ETA LEGEEN ARABERAKO

Lehen Hezkuntzan:

-67/2022 Foru Dekretua, ekainaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumak ezartzen duena (2022ko 130. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, uztailaren 1ekoa).

-63/2022 Foru Agindua, abuztuaren 8koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan dauden Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia arautzen dituen (2022ko 169. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, abuztuaren 25ekoa).

-52/2023 Foru Agindua, ekainaren 12koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzan ari diren ikasleen ebaluazioa eta sustapena arautzen dituen (2023ko 136. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, ekainaren 29koa).

-69/2023 Foru Agindua, abuztuaren 21ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako hezkuntza inklusioa arautzen duena (2023ko 196. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, irailaren 19koa).

Laburbilduz: sarrera + programazioaren
zentzua (oinarri teorikoa) + justifikazioa
lege ikuspegitik.

TESTUINGURUA

NORI GALDERARI ERANTZUNGO
DIOGU

2. TESTUINGURUA

2.1. HERRIA eta IKASTETXEA

Ikastetxeak ez dira ezerezetik sortutako erakundeak. Errealitate jakin bati erantzuten dioten erakundeak dira. Bere ingurunearen beharrei erantzun eta errealitatea eraldatzeko asmo dutenak.

-Zer idatzi puntu honetan?

Ikuspuntu sistemikotik gure ikasleen errealitatea ulertzeko testuingurua aztertu behar dugu. Galdera hauei erantzun beharko lioke:

Zein herritan kokatzen da? Biztanle kopurua? Errealitate sozioekonomikoa? Zein auzotan dago kokatua? Zer nolako auzoa da? Euskararen egoera? Auzoaren parte hartzea eskolan?

Gure ikastetxea nolakoa da? Zenbat lerro? Non dago kokatua? Zer nabarmentzen da IHPan? ICPan zerbait berezia? Plan bereziren batean dago murgilduta gure eskola? IUPan?

2. TESTUINGURUA

Ikastetxeak plan bereziak ditu? IKKI, Sarean edo heldutasun digitalean? Agenda 21? Proiektua lan egiten dugu?

Horretaz gain:

Harrera Planak, Hizkuntza Proiektua, Tutoretza plana...

2.2. BALIABIDE MATERIALAK:

- Zer nolako gela dugun, zer aukera eskaintzen dizkigun, zer beste baliabide ditugu eskolan gure jardunerako...

2. TESTUINGURUA

3. IKASLE TALDEA

Garrantzitsua da gure ikas-taldea ongi deskribatzea, izan ere, programazioaren beraren zentzuaz aritu garenean ikusi dugu programazioa: "Funtsean, ikasleen beharrak eta ezaugarriak balioesten ditu, lortu nahi diren helburuak aztertzen ditu, eta, beraz, irakasle-taldeak ikasleek ahalik eta arrakastarik handiena lortzeko hartzen dituen erabakiak zehazten ditu."

Izan ere, ez da gauza bera 4 urteko ikasle baten edo 10eko baten abstrakzio gaitasuna, denboraren pertzepzioa, transferentzia eta orokortze gaitasuna eta abar. Beraz, ongi definitu behar ditugu:

- Gure taldearen ezaugarri nagusiak aipatu beharko ditugu. Zenbat ikasle, jatorria, premia bereziak....
- Gure ikasleen ezaugarri psikoebolutiboak.

Laburbilduz: Herriaren deskribapena (ezaugarri demografikoak, kokapena, ezaugarri sozio-ekonomikoak, hizkuntza egoera, hezkuntza komunitateko agenteak...) + ikastetxearen ezaugarriak (fisikoak + ikastetxearen proiektuak) + taldearen deskribapena.

CURRICULUM ELEMENTUAK

ZER GALDERARI ERANTZUNGO DIOGU

[HTTPS://SITES.GOOGLE.COM/EDUCACION.N
AVARRA.ES/CURRICULOS-DE-NAVARRA-EU/
HASIERA?AUTHUSER=0](https://sites.google.com/educacion.navarra.es/curriculos-de-navarra-eu/hasierra?authuser=0)

3. CURRICULUM ELEMENTUAK

- Puntu honetan deialdiak aipatzen dituen eta curriculumean bertan "curriculum osagai" gisa definitzen direnak jasoko ditugu.
- Kontuan hartu bakoitzak dagokion curriculumak aukeratu behar duela etapako helburuak eta aipatzerakoan. Eta, edukiak zein ebaluazio irizpide eta standarrak norberaren espezialitate edo ikasketa batzuetako irakasgai edo modulo bati buruzkoa behar dute izan.
- Beraz, zuek aukeratutako etapako curriculumak hartu eta bertatik jaso ondoren jasoko ditugun curriculum osagaiak.
- Adibideen aurretik, dekretuek "curriculum osagaiak" nola definitzen dituzten ikusiko dugu.

3. CURRICULUM ELEMENTUAK: HAUR HEZKUNTZA

a) Helburuak: ikasleek etapa amaitzean erdiesteia espero diren lorpenak, funtsezko konpetentziak bereganatzearekin lotuta.

b) Funtsezko konpetentziak: ezinbestekotzat jotzen diren jardunak, ikasleek beren prestakuntza ibilbidean arrakasta bermatuta aurrera egin ahal izateko eta erronka globalei eta tokikoei aurre egiteko bete beharrekoak. Europar Batasuneko Kontseiluak 2018ko maiatzaren 22ko Gomendioan, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko konpetentziei buruzkoan, ezarritako funtsezko konpetentziak Espainiako hezkuntza sistemara egokitzearen emaitza dira.

c) Konpetentzia espezifikokoak: zenbait jarduera edo egoeratan, zeinetan lanketarako beharrezkoak baitira arlo bakoitzaren oinarritzko jakintzak, ikasleek bete behar dituzten jardunak. Konpetentzia espezifikokoak lotura elementu bat dira, funtsezko konpetentzien eta arloetako oinarritzko jakintza eta ebaluazio irizpideen artekoa.

d) Oinarritzko jakintzak: arlo bateko berezko edukiak osatzen dituzten ezagutzak, abileziak eta jarrerak, konpetentzia espezifikokoak eskuratzeko ikasi beharrekoak.

f) Ebaluazio irizpideak: erreferenteak dira, eta egoera edo jarduera batzuetan ikasleengandik espero diren jardun-mailak adierazten dituzte; egoera edo jarduera horiek lotuta daude, ikaskuntza prozesuaren une jakin batean, arlo bakoitzaren konpetentzia espezifikoekin.

3. CURRICULUM ELEMENTUAK: HAUR HEZKUNTZA

9. artikulua. Arloak.

1. Haur Hezkuntzaren hezkuntza edukiak haurren esperientziari eta garapenari dagozkien esparruekin bat datozen arlo batzuetan antolatzen dira; haurrentzat interesa eta esanahia duten ikaskuntza proposamen globalizatuen bidez landuko dira.

2. Haur Hezkuntzaren arloak hauek dira:

-Harmonian Haztea.

-Ingurunea Deskubritzea eta Esploratzea.

-Errealitatea Komunikatzea eta Irudikatzea.

3. CURRICULUM ELEMENTUAK: LEHEN HEZKUNTZA

a) Helburuak: ikasleek etapa amaitzean erdiesteia espero diren lorpenak, funtsezko konpetentziak bereganatzearekin lotuta.

b) Funtsezko konpetentziak: ezinbestekotzat jotzen diren jardunak, ikasleek beren prestakuntza ibilbidean arrakasta bermatuta aurrera egin ahal izateko eta erronka globalei eta tokikoei aurre egiteko bete beharrekoak. Ikasleen irteera-profilean jasota daude eta Europar Batasuneko Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 22ko Gomendioan, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko konpetentziei buruzkoan, ezarritako funtsezko konpetentziak Espainiako hezkuntza sistemara egokitzearen emaitza dira.

c) Funtsezko konpetentzien deskriptore eragileak: erreferentzia esparrua, konpetentzia espezifikoak eta funtsezko konpetentziak lotzen dituen, bide ematen duena konpetentzia espezifikoak ebaluatuta funtsezko konpetentzien bereganatze-maila zehazteko.

d) Konpetentzia espezifikoak: ikasleek zenbait jarduera edo egoeratan betetzeko gai izan behar duten jardunak, jarduera edo egoera horiei heltzeko beharrezkoak direnean arlo edo esparru bakoitzaren oinarrizko jakintzak. Konpetentzia espezifikoek lotzen dituzte, alde batetik, ikasleen irteera-profila, eta, bestetik, arloen edo esparruen oinarrizko jakintzak eta ebaluazio irizpideak.

e) Oinarrizko jakintzak: arlo edo esparru bati dagozkion edukiak osatzen dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak, konpetentzia espezifikoak bereganatzeko ikasi beharrekoak.

g) Ebaluazio irizpideak: erreferenteak dira, eta egoera edo jarduera batzuetan ikasleengandik espero diren jardun-mailak adierazten dituzte; egoera edo jarduera horiek lotuta daude, ikaskuntza prozesuaren une jakin batean, arlo bakoitzaren konpetentzia espezifikoekin.

i) Ikasleen irteera-profila (aurrerantzean, irteera-profila): tresna bat, zeinetan zehazten baitira Espainiako hezkuntza sistemak Oinarrizko Hezkuntzari dagokionez dituen printzipioak eta xedeak. Irteera-profilak identifikatu eta definitzen ditu, XXI. mendeko erronkei dagokienez, ikasleek Oinarrizko Hezkuntzaren etaparen bukaeran garatuta izan behar dituzten funtsezko konpetentziak, eta Lehen Hezkuntzaren bukaeran espero den jardun-mailari buruzko orientabideak sartzen ditu.

9. artikulua. Etaparen antolaketa. Arloak. 1. Lehen Hezkuntzako etapa, oro har, arloen arabera antolatzen da. Ikasleek ondoko arlo hauek ikasi behar dituzte etapako ikasmaita guztietan:

a) Ingurune Naturalaren, Sozialaren eta Kulturalaren Ezagutza; Natur Zientzietan eta Gizarte Zientzietan banatu daiteke.

b) Arte Hezkuntza; bitan banatu daiteke: batetik, Plastika eta Ikus Hezkuntza eta, bestetik, Musika eta Dantza.

c) Gorputz Hezkuntza.

d) Gaztelania eta Literatura.

e) Euskara eta Literatura, hala dagokionean.

f) Atzerriko Hizkuntza.

g) Matematika.

2. Aurreko apartatuan sartutako arloei, Balio Zibikoen eta Etikoen Hezkuntzaren arloa gehituko zaie hirugarren zikloko ikasmaitetako batean.

**Laburbilduz: gure programazioari dagozkion
curriculum elementuak jaso**

METODOLOGIA

NOLA GALDERARI ERANTZUNGO
DIOGU

4. METODOLOGIA

ZER DIO CURRICULUMAK METODOLOGIARI BURUZ?

f) Metodo pedagogikoak: irakasleek, kontzienteki eta gogoeta baten ondorioz, antolatu eta planifikatzen dituzten estrategiak, prozedurak, teknikak eta ekintzak; elkarren artean koordinatuta, helburu dute ikasleen ikaskuntza bideratzea helburuak eta funtsezko konpetentziak nahiz konpetentzia espezifikoak lortzera.

6. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Lehen Hezkuntza nahitaezkoa eta doakoa da.

2. Etapa honetan, hezkuntza ekintzaren ahalegina bideratuko da ikasleen esperientziak eta ikaskuntzak bateratzera, ikuspegi global batetik, eta bakoitzaren lan erritmo eta ezaugarrietara egokituko da; garrantzia emanen zaio, bereziki, ikasleen prestakuntza integralerako mesedegarriak izanen diren azturak, jarrerak eta balioak garatzeari.

3. Horretarako hartzen diren neurriak, antolaketakoak, metodologikoak nahiz curriculumeakoak, Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren printzipioek zuzenduko dituzte; inplikazio moduak (zergatik ikasi), irudikapen bideak (zer ikasi) eta ekintza eta adierazpen bideak (nola ikasi).

4. METODOLOGIA: CURRICULUMAK ZER DIO?

7. artikulua. Printzipio pedagogikoak.

1. Etapa honetan, arreta berezia jarriko zaio hezkuntza-inklusioa bermatzeari, ikasleei eta haien ikasteko premiei laguntza pertsonalizatua emateari, parte-hartzeari eta bizikidetzari, ikasteko zailtasunen prebentzioari eta, egoera horietako edozein detektatu bezain laster, errefortzu- eta malgutze mekanismoak, alternatiba metodologikoak edo bestelako neurri egoki batzuk abian jartzeari.

2. Hezkuntzaren esku-hartzearen helburua izanen da oinarri batzuk garatu eta pixkanaka sendotzea, ikasle bakoitzari errazteko Lehen Hezkuntzaren bukaeran, **ikasleen irteera-profilean aurreikusitako konpetentziak modu egokian bereganatzea, betiere kontuan hartuta ikasle bakoitzaren heltze prozesua eta etapa honetarako aurreikusitako jardun-mailak.**

4. METODOLOGIA: CURRICULUMAK ZER DIO?

3. Etapako arlo batzuetan berariazko tratamendua izan dezaketen arren, arlo guztietan landuko dira irakurriaren ulermena, ahozko eta idatzizko adierazpena, ikus-entzunezko komunikazioa, konpetentzia digitala eta sormenaren, espiritu zientifikoaren eta ekintzaitzaren sustapena.

4. Arreta berezia jarriko zaie beste konpetentzia batzuk bereganatzeko izaera instrumentala duten ikaskuntzei.

5. Horrekin batera, arlo guztietatik sustatuko da emakumeen eta gizonen berdintasuna, bakerako hezkuntza, kontsumo arduratsurako eta garapen jasangarrirako hezkuntza eta osasunerako hezkuntza, hezkuntza afektibo-sexuala barne.

4. METODOLOGIA: CURRICULUMAK ZER DIO?

6. Era berean, arreta berezia jarriko zaie hezkuntza orientazioari, tutoretza-lanari, hezkuntza emozionalari eta balioen hezkuntzari.

7. Autonomia eta hausnarketa sustatzen dituen ikaskuntza esanguratsua indartuko da.

8. Irakurtzeko ohitura sustatzeko eta irakurmena menderatzera iristeko, egunero denbora bat eskainiko diote ikastetxe guztiek irakurketari, bakoitzak bere hezkuntza-proiektuan jasotako moduan. Horretan laguntzeko, Hezkuntza Departamentuak irakurketa eta alfabetatzea sustatzeko planak bultzatuko ditu hainbat hedabide, teknologia eta hizkuntzatan. Horretarako, beharrezkoa bada, familien edo legezko tutoreen eta boluntarioen laguntza baliatuko da, eta jardunbide egokien trukea egingen da.


4. METODOLOGIA: CURRICULUMAK ZER DIO?

9. **Konpetentziak errazago barnera daitezzen, ikasleentzako proiektu esanguratsuak egiteko eta arazoak elkarlanean konpontzeko erabiliko da eskola-orduetako denbora bat, eta autoestimua, autonomia, hausnarketa eta erantzukizuna indartuko dira. Horretarako, Hezkuntza Departamentuak zehaztuko du ikastetxeek zenbat eskola-ordu izanen dituzten etapako konpetentzia guztien garapen integratua bermatzeko eta zeharkako edukiak arlo eta esparru guztietan sartuko direla ziurtatzeko.**

10. Atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan ulermena, adierazpena eta ahozko interakzioa lehenetsiko dira. Gaztelania edo, hala dagokionean, euskara, atzerriko hizkuntzak ikasteko prozesuan laguntzeko baizik ez da erabiliko.

4. METODOLOGIA: ETA GUK?

- Kontzienteki bada, atzetik planteamendu pedagogiko bat dago. Zein? azal dezagun. Ikuspegi sozioeraikitzailea izango da oinarria, ikuspegi inklusiboarekin bat.
- Antolaketa eta planifikazio aldetik, gure sekuntzia edo unitateetan hurrenkera bat ikusi behar da. Irizpide psikopedagogiko, epistemologikoak eta praktikoak azaldu behar dira.
- Saioen beraren antolaketa azaldu behar da. Baliabideak adierazi behar ditugu: bai materialak zein didaktikoak.
- Gainera, kontuan hartu behar dugu irakasgai guztien didaktika ez dela bera. Zer dio Curriculumak arlo bakoitzari buruz?
- Eta, zer da oposaketako kalifikazio irizpideetan eskatzen zaiguna?



METODOLOGIA: ETA GUK?

Metodologiaren atal honetan **IKT**-ak ere aipatu beharko genituzke (unitateetan jasoko baditugu ere).

Kontuan hartu ikasleen gaitasun digitalak garatzea hezkuntzaren helburuetako bat dela eta, badagoela europako marko bat (DIGICOMP eredua). Zein da gure ikasleen irteera profila?

IKTek hezkuntzan bete behar duten paperaren inguruan hausnartzea ez dago gaizki. Izan ere, helburu edo bitarteko (lanabes) behar dute izan? Gure planteamenduetan zer jaso behar dugu? Moodle, Koaderno digitalak, Google Classroom, horiek baldin badira gure tresnak horiek aipatuko ditugu.

Zer eta zertarako erabiliko ditugun zehaztuz.

Horietaz gain, infografiak, denbora lerroak, simulazioak, aurkezpenak, komunikaziorako edo zernahi funtzioetarako erabiltzen ditugun tresnak ere aipatuko ditugu.

Laburbilduz: Marko Teorikoa + Foru dekretuak diona + gure planteamendua (IKTak barne)

5. EBALUAZIOA

Atal honek jaso beharko lituzkeen atalak:

- Zer diote curriculumak eta foru aginduak ebaluazioari buruz?
- Zein da gure ebaluazio planteamendua? Hau da: Prozedurak, lanabesak, tresnak eta ebaluazioari lotutako bestelako alderdiak zehaztea, Nafarroako Foru Komunitatean ebaluazioaren arloan aplikatu beharreko araudiari jarraituz.

5. EBALUAZIOA: CURRICULUM ETA AGINDUA

Ebaluazioaren atal hau osatzeko bi dokumentu hartu behar ditugu kontuan etapa bakoitzean:

Haur hezkuntzan:

-61/2022 Foru Dekretua, ekainaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako etapako curriculuma ezartzen duena (2022ko 112. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, ekainaren 7koa).

-59/2023 Foru Agindua, ekainaren 30ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzan ari diren ikasleen ebaluazioa arautzen duena (2023ko 151. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, uztailearen 20koa).

5. EBALUAZIOA: CURRICULUMA ETA AGINDUA

Lehen Hezkuntzan:

-67/2022 Foru Dekretua, ekainaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculuma ezartzen duena (2022ko 130. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, uztailaren 1ekoa).

-52/2023 Foru Agindua, ekainaren 12koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzan ari diren ikasleen ebaluazioa eta sustapena arautzen dituena (2023ko 136. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, ekainaren 29koa).

5. EBALUAZIOA: EBALUAZIO PLANTEAMENDUA

Curriculumean zein ebaluazio dekretuetan esaten denaz gain, ebaluazioaren inguruko hausnarketa teoriko bat ere jasotzea komeni da. Hau da, zein ikuspuntutik helduko diot nik ebaluazioari? ebaluazio sumatibo hutsa da nire planteamendua edota ebaluazioaren ikuspuntu hezitzaile batean oinarritzen da?

Hori finkatutakoan, nire ebaluazio planteamendua azalduko dut.

Noiz, nola, nork eta zer ebaluatuko dudan zehaztu beharko dugu.

Noiz?: ebaluazioak une desberdinak izango ditu. Hasierakoa, tartekoa, amaierakoa.

Nola?: zein tresna erabiliko ditut ebaluatzeko?

Nork?: Nork ebaluatuko du? ikasleek, irakasleek, ko-ebaluazioa, autoebaluazioa, heteroebaluazioa...

Zer ebaluatuko dugu?: Baliabide interesgarri bat: “Curriculum-erabakiak: Ebaluazioaren inguruko erabaliak”. Sarean dago.

**Laburbilduz: Marko Teorikoa + Curriculumak eta
Foru dekretuak (ebaluazioari dagokiona) diotena +
Gure planteamendua (zer, noiz eta nola)**

ANIZTASUNA

Nori eta nola uztartu

6. ANIZTASUNA

Atal honetan erantzun behar dugun galdera nagusia honakoa da:

-Nola erantzungo diogu gure gelako aniztasunari (aurretik deskribatu dugun gela horri alegia).

Horretarako:

- Zer dio foru dekretuak aniztasunari buruz? eta 69/2023 FORU AGINDUAK?
- Zein erantzun emango diot nire gelako aniztasunari?

6. ANIZTASUNA: DEKRETU ETA AGINDUETATIK

Ikasturte hasierako jarraibideetan honakoa aipatzen da:

Ikastetxea da, bere osotasunean, bertako ikasle guztien aniztasunari erantzun inklusiboa eta hezkidetzan oinarritua emateko arduraduna, haien presentzia, parte-hartzea eta ikaskuntza bermatuz, eta, horretarako, konpromiso irmoa erakutsi behar du bikaintasunaren, ekitatearen eta genero-berdintasunaren printzipioekin, hezkuntza inklusiboaren oinarri diren aldetik.

Ikasleen aniztasunari ahalik eta egokien erantzuteko, funtsezkoa da irakasle talde osoaren lana. Ikaskuntzarako sarbidea oztopatzen duten trabak hautematea izanen du ardatz, eta horiek ezabatzeko helburuak zein diren adierazi behar du (hobekuntza planean jaso beharko dira helburuok). Erantzun hori ikasturtea antolatzeko alderdi nagusietako bat izan behar da.

ANIZTASUNA

Neurrien ezarpenak paradigma kontestualari erantzunen dio Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsalaren (IDU) ikuspegitik, hala, curriculumaren malgutasuna sustatuz, curricula irekia eta inklusiboa izateko hasieratik, etorkizuneko beharrezko eta ekidin ezinezko egokitzapenak murrizten saiatuz.

6. ANIZTASUNA: CURRICULUMAK ZER DIO?

15. artikulua. Banako desberdintasunei arreta jartzea.

1. Inklusioa sendotzeko eta kalitatezko hezkuntzarako eskubidea bermatzeko, etapa honetan garrantzia emanen zaie, bereziki, ikasleen arreta indibidualizatuari, haien premia berariazkoak goiz detektatzeari eta laguntza eta errefortzu mekanismoak ezartzeari, ikasleak ikasmila berean gelditzea saihesteko, batez ere gizarte egoera ahulean daudenen artean.

2. Hezkuntza Departamentuak ezarritakoaren barruan, ikastetxeek, beren ikasleen banako potentziala ahalik eta gehien garatze aldera, behar diren neurriak hartuko dituzte haien hezkuntza premiei erantzuteko, haien erritmo eta ikaskuntza estiloak kontuan hartuta. Horretarako, ikastetxeek arlo, ikasketa, espazio eta denboren antolaketa malgutzeko neurriak ezartzen ahalko dituzte, eta alternatiba metodologikoak sustatzen, ikasle guztien ikasteko gaitasuna eta emaitzak pertsonalizatzeko eta hobetzeko.

6. ANIZTASUNA: CURRICULUMAK ZER DIO?

3. Neurri horiek ikastetxeen hezkuntza proiektuen parte izanen dira, eta ikasle guztiek Lehen Hezkuntzaren bukaeran, irteera-profilaren arabera, espero den kompetentzia-maila eta etapako helburuak lortzea ahalbidetzera bideratuko dira, eta hortaz, neurri horien onura hartzen dutenentzat ez dute ekarriko inolako diskriminaziorik, hurrengo ziklo edo etapara igotzea galaraziko dienik.

4. Ikasteko zailtasunak detektatu bezain laster abian jarriko diren laguntza eta errefortzu mekanismoak antolaketakoak, curriculumeakoak eta metodologikoak izanen dira. Neurri horien artean sar daitezke ikastalde arruntean laguntza jasotzea, taldekatze malguak edo curriculumaren egokitzapenak.

6. ANIZTASUNA: CURRICULUMAK ZER DIO?

16. artikulua. Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak.

A) Printzipio orokorrak.

1. Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak dira hezkuntza arreta arruntaz bestelakoa behar dutenak, hezkuntza premia bereziak dituztelako, heltze prozesuko atzerapenagatik, hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenaren nahasmenduengatik, arretaren edo ikasteko prozesuaren nahasmenduengatik, ikaskuntzarako hizkuntzaren ezezagutza handiagatik, gizarte eta hezkuntza ahulezia egoeran egoteagatik, adimen gaitasun handiak izateagatik, hezkuntza sisteman berandu sartzeagatik edo baldintza pertsonalengatik edo eskola historiaren baldintzengatik.

6. ANIZTASUNA: CURRICULUMAK ZER DIO?

2. Ikasteko zailtasunak detektatu eta berehala neurri inklusiboak hartuko dira, antolaketakoak, curriculumekoak eta metodologikoak, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleek etapako helburuak eta konpetentziak lortu ahal izateko. Neurri horietako batzuk izan daitezke talde arruntan laguntza ematea, taldekatze malguak egitea edo curriculumaren egokitzapenak, bai eta malgutzearen alde egitea eta alternatiba metodologikoak erabiltzea atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzan eta ebaluazioan, batez ere hura ulertzeko eta erabiltzeko zailtasunak dituzten ikasleen kasuan.

3. Era berean, ikastetxeek behar diren neurri egokienak ezarriko dituzte ebaluazioarekin lotutako prozesuak egiteko baldintzak ikasle horien beharretara egokitu daitezzen.

6. ANIZTASUNA: CURRICULUMAK ZER DIO?

B) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.

1. Hauek dira hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak: hezkuntza jasotzea, eskolan egotea, parte hartzea edo ikastea mugatzen dieten oztupoak dituztenak -desgaitasunak edo jokabidearen, komunikazioaren eta hizkuntzaren nahasmendu larriak dituztelako eskolatze-aldiaren tarte batean edo eskolatze-aldi osoan-, berariazko hezkuntza-laguntza eta -arreta batzuk behar dituztenak haien garapen-mailarekin bat datozen ikaskuntza-helburuak betetzeko.

2. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei erantzuna emateko, ikastetxeek egokitzapenak ezartzen ahalko dituzte, curriculumaren ebaluazio irizpideetatik eta oinarrizko jakintzetatik nabarmen aldentzen direnak, etapako funtsezko konpetentziak eta helburuak ahalik eta gehien garatzeko aukera emateko xedearekin.

6. ANIZTASUNA: CURRICULUMAK ZER DIO?

3. Egokitzapen horiek beharrezkoak diren arloetan, ebaluazio jarraitua egiteko erreferenteak egokitzapenetan finkatutako curriculum elementuak izanen dira, eta horrek ez die galaraziko ikasleei zikloz edo etapaz igotzea.

4. Ikasle horien hezkuntza-premiak ahal bezain laster identifikatu eta baloratuko dituzte horretan aditu diren profesionalek, Hezkuntza Departamentuak finkatzen dituen baldintzetan. Prozesu horretan, nahitaez, entzun egin beharko zaie ikaslearen gurasoei edo legezko tutoreei, eta informazioa eman beharko zaie. Hezkuntza Departamentuak sor daitezkeen desadostasunak konpontzeko prozedurak arautuko ditu, betiere kontuan hartuta adingabearen interes gorena eta erregimen inklusiboena lehenesten duten familien borondatea.

6. ANIZTASUNA: CURRICULUMAK ZER DIO?

C) Ikasteko zailtasun espezifikoak dituzten ikasleak.

1. Ikasle horien hezkuntza-premiak ahal bezain laster identifikatu eta baloratuko dira, eta horietarako esku-hartzea ere lehenbailehen egingen da, Hezkuntza Departamentuak finkatzen dituen baldintzetan.

2. Ikasle horien eskolatzea normalizazio eta inklusio printzipioek arautuko dute; eskolatzeak diskriminaziorik ez egotea ziurtatuko du, bai eta hezkuntza sisteman sartzeko eta egoteko berdintasun efektiboa ere.

6. ANIZTASUNA: CURRICULUMAK ZER DIO?

D) Espainiako hezkuntza sisteman berandu sartzen diren ikasleak.

1. Espainiako hezkuntza sisteman berandu sartzen diren ikasleak eskolatzeko, kontuan hartuko dira haien egoera, ezagutzak, adina eta historia akademikoa. Eskolatzeko hizkuntzan edo hizkuntzetan gabezia handiak baldin badituzte, arreta berariazkoa jasoko dute, ikastalde arruntetan eskolatzearekin batera betiere, eta talde horiekin egingen du ahalik eta eskola-ordu gehien astean.

2. Dena dela, curriculumeko konpetentzia-mailan ziklo bateko edo gehiagoko atzerapena dutenak adinagatik dagokiena baino ikasmila bat beherago eskolatzeko ahalik dira. Ikasle horientzat behar diren errefortzu neurriak hartuko dira, eskolan integratzen eta atzerapena gainditzeko laguntzeko eta ikasketak aprobetxamenduari ekiten jarrai dezaten. Atzerapen hori gainditzeko bada, adinaren arabera dagokion mailan sartuko da ikaslea.

6. ANIZTASUNA: CURRICULUMAK ZER DIO?

E) Adimen-gaitasun handiko ikasleak.

1. Ikastetxeek behar diren neurriak hartuko dituzte adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleak identifikatzeko eta haien beharren balorazio goiztiarra egiteko. Horrekin batera, behar horietarako egokiak diren jarduketa planak eta curriculumak aberasteko programak ezarriko dituzte, ikasle horiei beren gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko aukera emanen dietenak.

2. Hezkuntza Departamentuak ezartzen dituen baldintzetan, adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleen eskolatzea malgutzen ahaliko da, etapako iraupena ikasmaila bat murrizteko, aurreikusten denean hori dela neurri egokiena ikaslearen oreka pertsonala eta sozializazioa garatzeko, baldin eta neurri arruntak aski izan ez badira ikaslearen hezkuntza beharrei erantzuteko.

ANIZTASUNA: GURE PLANTEAMENDUA

Berariazko curriculumean dionaz gain, ondorengo Foru Agindua hartu behar dugu kontuan aniztasunaren atala osatzeko:

69/2023 FORU AGINDUA, abuztuaren 21ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako hezkuntza inklusioa arautzen duena.

Aniztasunaren kasuan, curriculumak eta dekretuak jasotakoaz gain, komeni da aniztasunari marko teoriko bat ezartzea. Hau da, gure jarduna gidatuko duen planteamendua.

Bestalde, ez ahaztu "ikastaldea" atalean definitu dugun taldearen aniztasunari erantzuteko unea dela. Hau da, zein neurri mota hartuko ditugun deskribatuko dugu.

**LABURBILDUZ: ZER DIO DEKRETUAK? ETA FORU AGINDUAK?
NOLA HELTZEN DIO ESKOLAK? NOLA ERANTZUNGO DIOGU
GURE GELAKO ANIZTASUNARI**

UNITATE
DIDAKTIKOAK

UNITATE DIDAKTIKOAK

Deialdiak aipatzen duen moduan, programazioaren atal honetan 10 unitate didaktiko jaso behar ditugu.

Programazioan ez ditugu unitateak garatzen. Haien “hezurdura” baizik.

UNITATE DIDAKTIKOAK: ZER JASO BEHAR DA?

- Ikaskuntzaren helburuak.
- Konpetentzia espezifikoak.
- Oinarrizko jakintzak.
- Irakaskuntza jardueren sekuentzia.
- Hedatu beharreko ikaskuntza egoerak.
- Ebaluazio prozedurak eta irizpideak.
- Deskribatzaile operatiboak.
- Metodo pedagogikoak, estrategiak eta espazioen eta denboren antolamendua, materialak eta baliabideak.
- Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzako arreta.

UNITATEAK/ IKAS EGOERAK: NOLA HELDU ATALARI

Gure sekuentzien atzean dagoen planteamendu pedagogikoa azaldu ostean, gure programazioko unitateen/ ikas egoeren diseinuari ekingo diogu.

- Lan horretan lehen urratsa sekuentziak edo unitateak ikasturtean zehar banatzea izango da.
- Horretarako ikasturteko egutegia hartu eta 10 zatitan banatuko dugu.
- Kontuan hartu lan horretan irakasgaiak zenbat ordu dituen aintzat hartu beharko dugula. Ez baita gauza bera matematika edo gaztelera.
- Sekuentziek/ikas-egoerek ez dute zertan saio kopurua izan behar, baina komeni da banaketa homogeen bat izatea eta, are gehiago, planteamendu homogeen bat. Izan ere, planteamendu homogeen batek aukera emango digu sekuentziak errazago defendatzeko.
- Egutegian banatu ondoren, sekuentziak hurrenkeran definitzen hasiko gara. Horretarako, komeni da sekuentziek barne eta kanpo koherentzia eta kohesioa izatea.

UNITATE DIDAKTIKOA: IKAS EGOERAK

1. Lagungarriak dira berariazko gaitasun bat edo batzuk garatzeko.
2. Oinarrizko jakintzak integratzen dituzte: egoeran aurrera egiteko, beharrezkoa da curriculumean deskribatutako jakintzak abian jartzea, eta jakintzak eta ikasleek hainbat testuingurutan eskuratutako esperientziak lotzea.
3. Estrategiak, prozesuak eta konponbideak komunikatzea eta irudikatzea eskatzen dute. Beraz, ebaluazioan, prozesuari eta azken irtenbideei emanen zaie garrantzia.
4. Arazo, erronka edo egoera bat planteatzen dute, non eskatzen dena argi eta berariaz azaltzen den.
5. Behar bezain irekiak dira, ez baitago erantzun edo konponbide bakarra.
6. Galdera edo arazo bati sormenez erantzutea dakarte.

7. Interes publikoko gaiak jorratzen dituzte.
8. Ikuspegi kritikoa eta gogoetatsua behar dute.
9. Lankidetzeta eta talde-lana bultzatzen dituzte, gaitasun sozioemozionalak garatuz.
10. Ikasleen adinera eta garapen kognitiboaren mailara egokitzen dira.
11. Ikaskuntzaren diseinu unibertsalarekin (IDU) lerrokatzen dira: inklusiboak dira, eta ikasle guztiek aukera izan behar dute egoerei heltzeko eta konpontzeko.
12. Esanguratsuak, garrantzitsuak eta estimulagarriak dira, eta ikasleen intereseko gaiak lantzen dituzte, edo modu erakargarrian aurkezten dira.

UNITATE DIDAKTIKOA

Ikaskuntza egoera baterako elementuak:

- Sarrera: testuingurua eta egoeraren helburua.
- Deskribapena (nola gauzatu den): jarduerak, metodologia, ebaluazio tresnak, etab.
- Amaierako produktua.

Txantiloia:

<https://docs.google.com/document/d/1yVhs5zFFC54pjrXUqVLISS1b--BcIA-BQArOrnI9QRw/edit>

Baliabideak:

[-https://sites.google.com/educacion.navarra.es/curriculos-de-navarra-eu/baliabideak/baliabideak-ikaskuntza-egoerak?authuser=0](https://sites.google.com/educacion.navarra.es/curriculos-de-navarra-eu/baliabideak/baliabideak-ikaskuntza-egoerak?authuser=0)
[-https://curriculum.euskadi.eus/eu/ikas-egoerak](https://curriculum.euskadi.eus/eu/ikas-egoerak)